

## Euzkadi eta bere askatasuna

*Alderdi*, 284. zk., 1973-05/06.

Gure arerio direnak erabiltzen dute errezen gure "askatasun" itzak izan dezaken aurkako adierazpen nabarmenena: *bakarti* eta *berekor* denarena. Eta gu ez gero gerekor eta bakarti izan; bestela, iñoren kezka guziak gureak bezala artu izan ditugun eta gure arazoak axola gutxiarekin artu ditugun erria izan gera batez ere.

Alde batetik, zoritxarrez.

Gauza guziek bezala, onek ere beste alde bat ba du, eta gainontzeko erriei eskua emanda ibiltzeak eman dio gure erriari lur-zabaleko den orokortasun eta nortasun berezi bat, eta nortasun onek biarko European gertatzen ari den erri-erakundean erri-emankor izaten osasuntsu lagunduko dio.

Euskotarrok ba dakigu beste edonork aino gizonak eta erriak ezin direla bakarrik bizi, eta ezin dituztela inguruan, bakarti, orma batzuk eraiki; ez ekonomi aldetik bakarrik, ezta sozioloji eta politika aldetik ere. Baina ba dakigu, beste aldetik, ezin dela errespetoan oinarritu gabe gizon-arteko eta erri-arteko baliiodunik ezer egin. Orregatik gera gu, euskotarrok, tolerantzi neurria maiz eman dugunak, eta aurrera ere neurri berdina emango dugunak.

Ba ditu, bada, gure *askatasunak*, bai gizon-neurrian eta baita erri-neurrian ere, mugak.

Baina ba ditu *baldintzak* ere: mugaketak onartzeko, euskotarrok gure buruaren jabe izan bear dugu, eta gure naiaz, gizon eta erri-nai nagusiaz, onartuak izan bear dute.

Euzkadi-k auleriak ba ditu; batez ere, gutxi izateak. Baina ba ditu indar bereziak ere: *erri* izatez gainera, *erri-naimena* dugula, *erri* izateko dei sakona eta illezkorra sentitzen dugula.

Gure erritasunari mugak geok jarriko dizkiogu, eta ziur gaude jartzen dizkiogun mugak ez diela gainontzeko erriei eta gainontzeko gizonei kalterik ekarriko.